| 6. ERANSKINA: GAZTERIA SAILA | ANEXO 6: ÁREA DE JUVENTUD |
|---|---|

| 6.1. URTEKO PROGRAMAK EGITEKO, GAZTEEN ELKARTEENTZAT DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRI-ARAU ESPEZIFIKOAK | 6.1. BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DIRIGIDAS A ASOCIACIONES JUVENILES PARA LA REALIZACIÓN DE LOS PROGRAMAS ANUALES |
|---|---|
| **1. Xedea** | **1. Objeto** |
| Oinarri-arau hauetako xedea da Arrasateko herrian gazteen elkartegintza sustatzeko diren dirulaguntzak emateko deialdia erregulatzea, bai eta Arrasateko eremuan urteko jarduerak eta programak finantzatzeko gazte elkarteentzat diru baliabideak emateko diren dirulaguntzak ere. | El objeto de las presentes bases es regular la convocatoria para la concesión de subvenciones destinadas a la promoción del asociacionismo juvenil en el municipio de Arrasate así como a la prestación de recursos económicos a las asociaciones juveniles para la financiación de actividades y programas anuales en el ámbito de Arrasate. |
| **2. Onuradunak** | **2. Personas beneficiarias** |
| Laguntza hauek jasotzeko aukera izango dituzte gazteria xede duten herriko elkarteek nahiz herriko elkarteetako gazte sailek. Halaber, aukera izango du herriko gazteen elkarteen koordinazio erakundeak, Gazteen Herriko Kontseilua izenekoak. | Podrán optar a estas ayudas tanto las asociaciones locales cuyo objeto sea la juventud, como los departamentos juveniles de las diferentes asociaciones locales. Asimismo, podrá optar a estas ayudas la coordinadora de asociaciones juveniles locales, el denominado Consejo Local de la Juventud. |
| Erregistro publikoan inskribaturik egoteko betebeharrari dagokionean, deialdi honen oinarri orokorren 4. artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte onuradunek. | Las personas beneficiarias deberán reunir las condiciones exigidas en el artículo 4 de las bases generales de la presente convocatoria en cuanto a la obligatoriedad de inscripción en el correspondiente registro público se refiere. |
| **3. Aurkeztu behar den dokumentazioa** | **3. Documentación a presentar** |
| Interesa duten entitateek aurkeztu behar dute, 2009ko deialdiaren oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan eskatutako dokumentazioaz gain, agiri hauek: | Las entidades interesadas deberán presentar, además de la documentación solicitada en el artículo 7 de las bases generales de la convocatoria 2009, la siguiente documentación: |

| | |
|---|---|
| - Elkartearen helburuak, arduradunen datuak, bazkide kopurua, jarduera nagusiak. | - Objetivos de la asociación, datos de los/as responsables, número de socias/os, actividades principales |
| - Elkarte berria bada, helburua jasotzen duen aurkezpen idatzia, jarduera eremua, helburuak, bazkide kopurua, baliabideak eta abar. | - En el supuesto de nuevas asociaciones, escrito de presentación que recoja su objeto, ámbito de actuación, objetivos, número de socia/os, recursos, etc. |
| **4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.** | **4. Unidad administrativa encargada de la tramitación** |
| Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak. | Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud. |
| **5. Eskabideak baloratzeko irizpideak** | **5. Criterios de valoración de las solicitudes** |
| Oinarri-arau hauetan arautzen diren laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira, atal bakoitzeko hemen jasotzen den puntuazioarekin: | Para el cálculo de las ayudas reguladas en las presentes bases se aplicarán los siguientes criterios, con la puntuación que a continuación se recoge por cada apartado: |
| 1. Elkartearen proiekzio soziala, beste gizarte eta kultura entitate eta dinamizatzaileekin duen inplikazio maila. Gehienez ere 25 puntu arte. | 1. Proyección social de la asociación, nivel de implicación con otras entidades y dinamizadores sociales y culturales. Hasta un máximo de 25 puntos. |
| 2. Aurkeztu den proiektuaren kalitate teknikoa (diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa, izaera berritzailea eta abar) eta horren egokitasuna. Gehienez ere 25 puntu arte. | 2. Calidad técnica del proyecto presentado (diseño, metodología, organización de recursos, carácter innovador, etc.) y oportunidad del mismo. Hasta un máximo de 25 puntos. |
| 3. Herrian programak edo jarduerek izan dezaketen eragina eta aportazioa gazteria, kultura eta gizarte sailetan. Gehienez ere 25 puntu arte. | 3. Incidencia y aportación del programa o actividades a nivel local en las áreas de juventud, cultura y sociedad. Hasta un máximo de 25 puntos. |
| 4. Elkarteak egindako ahalegina, antolaketa eremuan nahiz ekonomia eremuan. Gehienez ere 15 puntu arte. | 4. Esfuerzo realizado por la asociación tanto a nivel de organización como a nivel económico. Hasta un máximo de 15 puntos. |
| 5. Euskararen sustapenaren aldeko jarrera. Gehienez ere 10 puntu arte. | 5. Disposición favorable a la promoción del Euskara. Hasta un máximo de 10 puntos. |
| Edozelan ere, programa honetan aurreikusten diren laguntzak lortzeko, gutxienez 50 puntuko | En todo caso, para la obtención de las ayudas previstas en el presente programa los |

| | |
|---|---|
| puntuazioa lortu behar dute aurkezten diren proiektuek. | proyectos presentados deberán obtener una puntuación mínima de 50 puntos. |
| **6. Aurrekontua** | **6. Presupuesto** |
| Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 19.000 €-koa da, eta finantzatuko da "1.11.00.480.456.00.00– Gazteriako dirulaguntzak" kontu sailaren kontura. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 19.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.11.00.480.456.00.00- Subvenciones Juventud". |
| **7. Klausula gehigarria** | **7. Cláusula adicional** |
| Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |